



2015eko RAMON Y CAJAL DEIALDIA: **TALDEEK ETA PIUek UPV/EHUn INTERES ADIERAZPENAK** **AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK**

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak (MINECO) "**RAMON Y CAJAL AZPIPOGRAMA**" izeneko laguntzak deitu ditu Espainiako I+G zentroek jakintza arlo guztietako doktoreak lanerako kontratatzeko, bost urteko eperako.

Deialdiari buruzko informazio orokorra

Deialdia argitaratzearekin batera, **aldi berean**, irekiko da eskaerak aurkezteko epea, bai I+G zentroentzat bai ikertzaileentzat:

- I+G zentroek finantzatuko luketen gehieneko kontratu kopuruaren eskaintzak egingo dituzte, horien gaikako banaketa adierazita, arrazoiak eta erakundearen planetara nola egokitzen diren azalduz.
- Ikertzaile hautagaiek beren eskaera aurkeztuko dute ikerketa zentroa edozein izanda ere.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo du eskaini beharreko plazak jasotzen dituen UPV/EHUn eskaera, ikerketa taldeek edo, hala badagokio, PIUek, bidalitako interes adierazpenetan oinarrituta, jarraian adierazitako prozeduraren eta irizpideen arabera.

Jasotako interes adierazpenak UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordean (IGBB) aztertuko dira, eta horien guztien artetik aukeratuko dira, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak proposatuta, UPV/EHUK deialdira aurkeztuko dituenak, aldeztatik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren (Eusko Jaurlaritza) baimena jaso ondoren, deialdian adierazten den moduan.

Jasoko den finantziarioa eta kontratuen kostua

MINECOk urtean 33.720 euroekin finantzatuko du kontratu bakoitza, eta UPV/EHUK bere gain hartuko du ezarritako gutxieneko nomina gordinaren (31.600 euro) eta kuota patronalaren arteko aldea.

UPV/EHUK aurkeztuko dituen interes adierazpenak hautatzean erabiliko diren irizpideak

Ramón y Cajal deialdian aurkeztuko diren interes adierazpenak hautatzeko aplikatuko diren irizpideak, funtsean, interes adierazpena proposatu duen ikertzailearen eta R&C ikertzailea hartuko duen taldearen jardura zientifikoarekin lotuta daude; ikertzaileak Euskal Unibertsitate Sistemako



talde batekoa (finkatuak) edo UPV/EHUko talde aktibo batekoa izan behar du.

Honako hauek izango dira irizpide zehatzak:

- Proposamena egiten duen ikerketa taldearen edo PIUren balorazioa.
- Interes adierazpena proposatu duen ikertzaileak Euskal Unibertsitate Sistemako talde batekoa (finkatuak) edo UPV/EHUko talde aktibo batekoa izan behar du.
- Proposatutako gaiaren garrantzia I+G+B planen arabera.
- Ikerketa taldean langile gehiago sartzeko instalazio egokiak izatea.
- Lehentasuna izango dute ikerketa taldeekin erlazionatuta dauden eta deialdian parte hartzen duten hautagaien CVarekin batera aurkezten diren interes adierazpenek, CVak R&C deialdian emaitza positiboa aurreikustea ahalbidetzen badu.
- Lehentasuna izango dute aurreko deialdietan R&C ikertzaileak lortu ez duten taldeek aurkeztutako interes adierazpenek.

Deialdiko interes adierazpenen kudeaketa honako data eta mugarri egutegi honetara egokituko da:

1. Interes adierazpenak (honi erantsitako formatuaren arabera eginda) hautagaiaren CVarekin batera (hautagairik izanez gero) jasotzeko epea **2016ko urtarrilaren 12ra** artekoa izango da, egun hori barne.
2. Ministerioaren web orrian aurkeztuko dira **2016ko urtarrilaren 20ko 15:00ak baino lehen**.

Prozesuaren kudeaketan jarraituko diren irizpideak:

1. Formularioak, interes adierazpenaren proposamenekin eta hautagaien CVekin (halakorik izanez gero), convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidalitako posta elektronikoz bidez bakarrik jasoko dira, proposamenak eta CVak PDF formatuan erantsita eta gaian "Ramón y Cajal deialdia" jarrita.
2. IGBBn ez dira ebaluatuko **urtarrilaren 12ko 24:00etatik aurrera** jasotzen diren interes adierazpenak.
3. Behin IGBBk interes adierazpenen hautaketa onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak posta elektronikoz jakinaraziko die proposamen egileei IGBBn egindako azterketaren emaitza, bai onartutakoei dagokienez bai onartu ez direnei dagokienez.



4. Interes adierazpenaren deskribapena jasotzen duen formularioko atalak gehienez 750 karaktere izango ditu, Ministerioaren web orriko kideko atalak espazio hori baitauka.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak 750 karakterera bitarteko testua sartuko du. Gainerako testua, hau da, zifra horretatik aurrerakoa, ezingo da sartu.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du jasotako testuaren laburpenik egingo 750 karaktereko mugara egokitzeke.

5. Ez da beharrezkoa interes adierazpenari erantsitako dokumentazioa aurkeztea.

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Erabiltzaileari erraztasunak emateko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, kontsultak (gaiaren atalean "Ramón y Cajal deialdia" jarrita) posta elektronikoko bidez convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaltzea gomendatzen da, eta erantzuna ahalik eta azkarren emango da.